


Euskal AEko eraikuntza-kostuak % 0,7 txikitu ziren 2014ko uztailean, aurreko hilarekin alderatuta

lazko uztailarekin konparatuta, eraikuntza-kostuak % 1,2 txikitu dira

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizea % 0,7 jaitsi zen 2014ko uztailean aurreko hilaren aldean. Bestalde, hil horretako urte arteko tasa ere beheranzkoa izan zen (-%1,2), EUSTATEk emandako datuen arabera.



Aurreko hilekoaren aldean, ez da aldatu eskulanaren kostua, baina lehengaien kostuak % 0,8 jaitsi dira.

Azpi-sektoreka, etxegintzak eta obra zibilak bilakabide antzekoa izan dute lehengaien kostuei dagokionez aurreko hilarekin alderatuta; izan ere, eraikuntzako lehengaiak % 0,8 jaitsi dira eta obra zibilekoak, berriz, % 0,9.

Bi azpi-sektore horien urte arteko bilakaerari dagokionez, zeinu berekoak dira. Eraikuntzako lehengaien kostuak % 2,0 jaitsi dira eta obra zibilekoak, aldiz, % 2,3, iazko uztailekoekin alderatuta.

Sektoreak kontsumitu dituen lehengaietako batzuen urte arteko prezioak garestitu egin dira 2013ko uztailarekin alderatuz. Nabarmentzekoak dira *energia elektriko eta gasaren sektorekoak* (% 2,2ko hazkundera), *zuraren industriakoak* (% 1,8ko hazkundera) eta *industria ez-metalikoarenak* (% 0,7ko hazkundera). Aitzitik, beste sektore batzuetako lehengaien prezioak txikitu egin dira hamabi hilabete hauetan. Aipatzekoak dira *mineral ez-metalikoen sektorekoak* (% 4,1 txikiagoak), *petrolioaren finketarenak* (% 3,4 txikiagoak) eta *material elektrikoarenak* (% 1,9 txikiagoak).

1. TAULA. EUSKAL AEKO ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. ALDAKUNTZA TASAK(p). 2014KO UZTAILA

	INDIZEA	ALDEAREN %		
		m/m-1	m/m-12	m/abendua
GUZTIRA	102,2	-0,7	-1,2	-0,5
ERAIKINAK	102,0	-0,7	-1,1	-0,5
OBRA ZIBILA	103,5	-0,7	-1,4	-0,3
LEHENGAI	101,3	-0,8	-2,0	-1,2
ERAIKINAK	101,1	-0,8	-2,0	-1,2
OBRA ZIBILA	102,9	-0,9	-2,3	-0,9
LAN-ESKUA	105,4	0,0	1,8	1,8

Oinarria 2010=100

(p) behin-behinekoa

Iturria: Eustat. Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko datu-bankua